

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT). 2011ko 2. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,4 jaitsi ziren 2011ko bigarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, salmentak %1,5 murriztu ziren

Eustatek emandako datuen arabera, 2011ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,4 murriztu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Salmentak, gasolindegia sartu gabe, %1,5 murriztu ziren aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,2 nominala hazi da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. Egutegi-eragin zuzendua daukaten datuak

Urtea	Hiruhilekoa	Euskal AE	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
2009	II	-4,3	-8,8	-5,3	-0,8
	III	-2,5	-3,6	-2,3	-2,2
2010	I	5,2	3,5	4,8	6,6
	II	1,6	1,9	0,3	3,4
	III	-1,5	-1,2	-1,4	-1,8
	IV	-0,2	1,0	-1,0	0,5
2011	I	-1,8	-1,7	-2,3	-1,1
	II	-0,4	2,1	-1,2	-0,3

Iturria: EUSTAT. Euskal Ae ko txikizkako Barne Merkataritzaren Indizea

Sektoreka, txikizkako merkataritza espezializatuan %1,4 murriztu dira salmenta nominalak 2011ko bigarren hiruhilekoan, eta espezializatu gabeen %1,5 hazi dira 2010eko aldi beraren aldean.

Txikizkako espezializatuan Kontsumoko beste ondasunak nabarmentzen dira: %1,7ko hazkunde nominala. Gainerako sektoreetan jaitsi egin dira salmentak. Elikagaien salmentak %4,1 jaitsi dira; Pertsonaren ekipamenduarenak %0,6, eta Etxeko ekipamenduarenak %5,1. Txikizkako ez-espezializatuan, elikagaiak nagusi diren %2,3ko igoera dago eta %4,3ko jaitsiera gainerako produktuak nagusi diren.

2011ko bigarren hiruhilekoan txikizkako sektorearen salmenta nominalak %1,2 murriztu dira Bizkaian aurreko urteko hiruhileko beraren aldean eta %0,3 Gipuzkoan; Araban %2,1 hazi dira.

Prezio finkoetan, alegia, prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %3,5 murriztu dira bigarren hiruhilekoan

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %3,0ko jaitsiera errealak izan dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2011ko bigarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,4ko jaitsiera dago lehen hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren jaitsiera errealak %4,7 da, eta ez-espezializatuaren %1,0koa, 2010eko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren barruan, urte arteko bilakaerak negatiboak izan dira sektore guztietan Pertsonaren ekipamenduan izan ezik (%0,0). Etxearen ekipamenduan %6,6ko jaitsiera; Elikagaien salmentetan %7,2koa; Kontsumoko beste ondasunetan %6,8koa, beti termino errealetan.

Txikizkako ez-espezializatuaren, euro finkoetan, elikagaiak nagusi direnetan %0,1eko igoera dago eta %8,1eko jaitsiera gainerako produktuak nagusi direnetan.

Hiru lurraldeetan izan ziren jaitsierak salmentetan termino errealetan: Araban %3,0, Bizkaian %3,7, Gipuzkoan %3,5.

Euskal AE osoan, 2011ko lehen hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,3 murriztu da 2011ko bigarren hiruhilekoan.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua](#)